



## AKTEA/25

**BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA**  
**(2024-07-16)**

<b>Batzarraren izaera:</b>	Ohikoa
<b>Deialdia</b>	1. deialdia
<b>Data:</b>	2024-07-16 (Asteartea)
<b>Lekua:</b>	Irakaskintza kalea 14-16 (Gizarte eta Kultura Etxeko batzar gela)
<b>Hasiera-ordua:</b>	08:08
<b>Amaiera-ordua:</b>	08:38
<b>Alkate-Presidentea:</b>	NEMEH SHOMALY NADIA
<b>Batzordekideak:</b>	ETXEBARRIA TELLERIA ENDIKA ORTUZAR BUTRON XABIER GABANTXO URIAGEREKA MIREN KARMELE CARUEZO UGALDE MAITE
<b>Bertaratu ez direnak:</b>	URIARTE ANASAGASTI VICTOR
<b>Idazkaria:</b>	LEJARRAGA URIARTE JURDANA



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E800105B3500W1D0Y6H6O9C4

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
16/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/07/2024  
17:45:44

DOCUMENTO: 20241071925

Datea: 16/07/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

## Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2024-07-09 TGB (24)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- 30.672.817-V NAN zenbakidun langileari onartutako lan murrizketa bertan behera uzteko egindako eskaria onartzea.
- 4.- Bermeoko kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko diru-laguntzen 2023. urteko banaketa onartzea.
- 5.- Alkatetza dekretuen berri emotea.
- 6.- Eskari eta itaunak

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek euren kargua onartu dute. Jarraian, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Eraitza honakoa izan da:

### 1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2024-07-09 TGB (24)

Bertaratutako batzarkideek 2024ko uztailaren 9ko 24/2024 akta irakurrita, aho batez, onartzea erabaki dute.

### 2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDako PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.

### 3.- 30.672.817-V NAN ZENBAKIDUN LANGILEARI ONARTUTAKO LAN MURRIZKETA



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E800105B3500W1D0Y6H6O9C4

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 16/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/07/2024 17:45:44

DOCUMENTO: 20241071925

Datea: 16/07/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E800105B3500W1D0Y6H6O9C4



**BERTAN BEHERA UZTEKO EGINDAKO ESKARIA ONARTZEA.****Xedea**

2020.09.21etik 30.672.817-V NAN zenbakidun langileari onartutako lan murrizketa bertan behera uzteko egindako eskaera.

**Aurrekariak**

Bakarra: 2024ko uztailaren 2ko 202410123 zenbakidun sarrera erregistro bidez, 30.672.817-V NAN zenbakidun langileak honako hau eskatu du:

“Udalaren egonkortze prozesua dela eta praktikaldiarekin hasi behar naiz.

Hori dela eta uztailaren 5etik aurrera nire lanaldia %100 pasatzeko eskaria egiten dut.”

**Argudioak**

Lehenengoa: Urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura erkidearen 39/2015 Legearen 94. artikulua honako hau xedatzen du:

“94. artikulua. Interesdunek atzera egitea eta uko egitea.

1. Interesdun orok atzera egin dezake bere eskaeran, edo, ordenamendu juridikoan debekatuta ez badago, uko egin diezaieke bere eskubideei.
2. Hasierako idazkia interesdun bik edo gehiagok aurkeztua denean, norbaitek atzera egiteak edo uko egiteak hari bakarrik eragingo dio.
3. Bai atzera egitea, bai uko egitea, gauzatu daitezke jasota geratzeko edozein bitartekoren bidez, baldin eta aplikatzekoa den araudian aurreikusitakoaren arabera behar diren sinadurak badituzte.
4. Administrazioak bere horretan onartuko du atzera egitea edo uko egitea, eta amaitutzat emango du prozedura, non eta, prozeduran hirugarren interesdun batzuk pertsonatuta egonik, haiak ez duten eskatzen prozedurak jarraitzeko, atzera egitearen edo uko egitearen berri eman ondorengo hamar egunen barruan.
5. Prozedura hasteko gaia interes orokorrekoa bada edo gai hori mugatzeko eta argitzeko komeni bada hezurmamitzea, Administrazioak erabaki dezake interesdunari baino ez eragitea atzera egiteak edo uko egiteak, eta aurrera jarraitzea prozedurak.”

Bigarrena: Udaltzaren 56.3 artikulua honako hau xedatzen du:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E800105B3500W1D0Y6H6O9C4

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 16/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/07/2024 17:45:44

DOCUMENTO: 20241071925

Data: 16/07/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

“56. artikulua.- Adin txikikoak edo ezindu fisikoak edo psikikoak zaintzeko lizentzia:

3. Behar bezala arrazoitutako salbuespenezko egoera jakin batzuk kenduta, lizentzi hau hamabi hilabeteko epeetan emango da; lizentzia emateko arrazoiak asko aldatuz gero, langile publikoak lanaldi murrizketa aldatu ahal izango du eta lanera itzuli baino 15 egun lehenago, erakundeari horren berri eman beharko dio.”

## Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

**LEHENENGOA:** Urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura erkidearen 39/2015 Legearen 94. artikuluan eta Udalhitzeko 56.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, 30.672.817-V NAN zenbakidun langileari onartutako lan murrizketa bertan behera uztea onartzea.

**BIGARRENA:** 30.672.817-V NAN zenbakidun langileak %100eko ohiko lanaldia, atzera eraginez, 2024ko uztailaren 5etik aurrera hastea.

**HIRUGARRENA:** Interesdunari, sailburuari eta Langileria Sailari erabakiaren berri ematea, dagozkion ondorioetarako.

## 4.- BERMEOKO KIROL TALDEEN JARDUERA ARRUNTA FINANTZATZEKO DIRULAGUNTZEN 2023. URTEKO BANAKETA ONARTZEA.

Idazkariak ohartu du kontuhartzailearen kontrako txostena dagoela eta txostenean hurrengo jasotzen dela: “Aurkeztutako erabaki-proposamenean, Xixili G.T.k bere zorra ezabatu behar duela esaten da. Oinarrizko Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (DLO) 13. artikulua, arau horren beraren azken xedapenetako lehenengoaren arabera, onuradun izateko baldintzak ezartzen ditu, eta, beraz, “a priori”, dirulaguntza publikoak jasoko dituzten guztiek bete behar dituzte baldintza horiek. Baldintza horien artean, 13. artikuluko 2.e) atalean, zentzu negatiboan sartzen da onuradun izateko ezintasuna, arrazoi hauengatik: “e) No hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias o frente a la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes, en la forma que se determine reglamentariamente”. Beraz, elkarte hori ezin izango litzateke udal-dirulaguntzaren



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E800105B3500W1D0Y6H6O9C4

### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 16/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/07/2024 17:45:44

DOCUMENTO: 20241071925

Fecha: 16/07/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E800105B3500W1D0Y6H6O9C4



onuraduntzat hartu, harekin zorra duelako.” Idazkariak esan du kontuhartzailearen txostenarekin bat egiten duela.

Aho batez erabaki dute gaia argitu arte puntu hau mahai gainean uztea.

### **Proposamena**

#### **Xedea**

*Xixili taldeak aurkeztutako berraztertze errekurtsua eta gero Bermeoko kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko diru-laguntzen 2023. urteko banaketa onartzea.*

#### **Aurrekariak**

Lehenengoa: *2022ko abenduaren 19an Udal Osoko Bilkurak, 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen, Erabaki horren iragarkia 2023ko martxoaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialea argitaratu zan.*

Bigarrena: *Dirulaguntzen Plan Estrategiko horretan oinarrituta, Bermeoko kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko oinarri espezifikoak prestatu ziren.*

Hirugarrena: *2023ko irailaren 28an Osoko Bilkurak, 2023. urteko Bermeoko kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko diru laguntzaren oinarri espezifikoak onartu zituen.*

Laugarrena: *2023ko urriaren 10ean Tokiko Gobernu Batzarrak izandako batzarrean 2023ko diru-laguntzen deialdia onartu zan eta 2023ko urriaren 25ean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu.*

Bosgarrena: *Epe barruan hiru kirol talde aurkeztu zuten euren diru-laguntza eskaria: Xixili Gimnastika taldeak, Biara taldeak eta Urdaibai eskubaloi taldeak, hain zuzen ere.*

Seigarrena: *Bermeoko kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko dirulaguntzen 2023. urteko banaketa 2023/5370 Alkatetza Dekretuz onartu zen.*

Zazpigarrena: *Xixili Gimnasia taldeak Berraztertze errekurtsua (2024/624 erregistro zenbakia) aurkeztu zuen 2023/5370 zenbakidun Alkatetza Dekretuaren aurka.*

Zortzigarrena: *Errekurtsua partzialki onartu zen, beherago jasotzen den bezala:*

*“LEHENENGOA: I.S.O. Fernandez andreak, Xixili Gimnasia taldearen izenean eta ordezkartzan aurkeztutako Berraztertze Errekurtsua partzialki onartzea, eta*



erabakiaren deuseztasuna aldarrikatzea, prozedura ez betetzeagatik, aurkeztu beharreko dokumentazio gehigarria eskatzeko orduan, errekerimendua ez delako egin.

**BIGARRENA:** Banatu gabe geratu den diru kopurua emateko eskaria ezestea, dirulaguntzen banaketa, oinarrietan araututako moduan egin behar delako, onarri horiek lege baitira.

**HIRUGARRENA:** Errekurtsoa partzialki onartzearen ondorioz, prozeduraren atzera egitea onartzea, akatsa egin zen unera arte. Hori horrela, Xixili taldeari errekerimendua bideratuko zaio, 10 eguneko epea emanez dokumentazioa bere osotasunean aurkezteko.

**LAUGARRENA:** Beste kirol taldeen artean egindako diru-laguntza banaketa bertan behera uztea. Banaketa berriaren inguruko erabakia hartzen danean, erabakiaren ondorioz eman beharreko urratsak (dirua itzuli, zenbatekoa,..) jakinaraztea.”

Bederatzigarrena: 2024/3/6ko datan gabeziak zuzentzeko errekerimendua egin zitzaion Xixili taldeari.

Hamargarrena: Kirol Saileko zuzendariak, instruktorea dela eta irizpideen taula jarraituz, diru-laguntza baldintza zehatzen fitxetan oinarrituta, dirulaguntza kopuruen taula osatu zuen.

Hamaikagarrena: 2024ko apirilaren 16an diru-laguntzen balorazio batzordea batu zen, eta txosten teknikoak aztertu ondoren irizpideen taula onartu zuen berariazko oinarriak jarraituz.

Hamabigarrena: Kontuhartzaileak bere desadostasuna adierazten dau Xixili taldeari diru-laguntza jaso aurretik, aukera ematen zaiolako Kirol Sailarekin duen zorra kitatzeko.

## Argudioak

Lehenengoa: Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorra

Bigarrena: Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Diru-laguntzen Lege Orokorra garatzen duen Erregelamendua onetsi ebana.

Hirugarrena: Urdaibai Eskubaloi taldeak 143 puntu lortu ditu. Diru-sarreraren eta gasturen arteko aldea 6.937.51 eurokoa da. Taldeak behar bezala justifikatzeko eskatutako agiriak aurkeztu ditu.

Urdaibai taldeak 5.000 euroko diru-laguntza jaso zuen berraztertze errekurtsua aurkeztu



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E800105B3500W1D0Y6H6O9C4

### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 16/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/07/2024 17:45:44

DOCUMENTO: 20241071925

Data: 16/07/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



aurretik, eta behin eta balorazioa berriro egin, kopuru bera dagokio, hortaz ez dauka eraginik.

Laugarrena: Biara taldeak 56 puntu lortu ditu. Diru-sarreraren eta gastuen arteko aldea 3.543,62 eurokoa da, beraz, kopuru hori da gehienez dagokiona. Taldeak behar bezala justifikatzeko eskatutako agiriak aurkeztu ditu.

Biara taldeak 3.062,5 euroko diru-laguntza jaso zuen berraztertze errekurtsua aurkeztu aurretik, eta behin eta balorazioa berriro egin, jaso beharreko kopurua, 2.782,64 eurokoa da, hortaz 279,86 € itzuli beharko ditu.

Bosgarrena: Xixili taldeak 43 puntu lortu ditu. Diru-sarreraren eta gastuen arteko aldea 2.050,82 eurokoa da, beraz, kopuru hori da gehienez dagokiona. Taldeak behar bezala justifikatzeko eskatutako agiriak aurkeztu ditu. Taldeak aurkeztutako dokumentazioan, entrenatzaile bi agertzen dira 2022-2023ko denboraldiko kuotak ordaintzeko dutenak. Diru-laguntza jaso aurretik ordainketa eginda egon beharko da.

Seigarrena: Gastuak beharrezko kontsignazioa dauka RC 2024/000418.

Zazpigarrena: Diru-laguntza onartzeko ahalmenari dagokionez, Toki Erregimenaren Oinarriak onartzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.f) artikularen arabera, alkateari dagokio baina 2024ko apirilaren 24ko 1886 zenbakidun Alkatetza Dekretuz, ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrarengan delegatzea onartu zan.

### Proposamena

LEHENENGOA: Bermeoko kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko diru-laguntzen partida horrela banatzea:

- Biara taldea: 2.782,64 € (279,86 € itzuli behar ditu)
- Urdaibai eskubaloi taldea: 5.000 € (orkainketa eginda dago)
- Xixili G.T.: 2.050,82 € (Kirol Sailarekin duen zorrak kitatu behar ditu)

BIGARRENA: Euskerearen ordenantzak xedatzen dauzan kultura, kirol, aisialdi alkarte, musika talde eta bestelakoei diru-laguntzak emateko baldintzak bete behar dauz diru-laguntzearen jasotzaileak.

HIRUGARRENA: Erabagia interesdunei, Kontabilidade, Diruzaintza eta Ekonomia Sailei



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E800105B3500W1D0Y6H6O9C4

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 16/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/07/2024 17:45:44

DOCUMENTO: 20241071925  
Data: 16/07/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



*jakinarazotea.*

**LAUGARRENA:** *Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean erabagia argitaratzea.*

**BOSGARRENA:** *Osoko Bilkureari erabagiaren barri emotea.*

## 5.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Alkateak sinatutako dekretuen laburpena egin du.

## 6.- ESKARI ETA ITAUNAK

Miren Karmele Gabantxok galdetu du informatikariaren lan eskaintzaren inguruan ea aukerarik dagoen telekomunikazioen gradukoak onartzeko edo prozedura eteteko.

Idazkariak erantzun du oinarrietan agertzen den titulazioa edo baliokidea dela baldintza prozesuan onartua izateko eta behin prozesua hasita eteteko justifikazio sakona behar dela, interes publikoan oinarritutakoa.

Ez da eskaerarik ezta itaunik egin.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitatutako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidatutakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

*Orrri oinean sinatzaileak eta datak*



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E800105B3500W1D0Y6H6O9C4

### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 16/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/07/2024 17:45:44

DOCUMENTO: 20241071925  
Datea: 16/07/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

